Derio
Udaleko Aldizkaria



# Tradizioa: sustraiak eta biziraupena

## Mujeres, euskera y tierra, esencia de vida

Euskara, emakumeak, tradizioa eta lurra. Emakumearen zeregina eta gure munduan, emakumeak duen egoera aldarrikatzeko deia egiten zaigu martxoaren 3an. Gure ingurunean ama eta etxekoandrea beti oso balioetsita egon da, baina gizonezkoen goragoko ikuspegi batetik. Euskara, gure ingurunearekiko eta lurrarekiko adierazpide sustraituena, aspalditik datorkigu. Hilabeteen izenak uzta (uztaila) edo horren etekinei (azaroa) buruzkoak dira. Azken hamarkadetan tradizioko ekitaldia errepikatzen da: Korrika, gure hizkuntzaren aldeko lasterketa. Euskarak gure komunitatean duen zeregin egituratzailea jartzen du agerian Korrikak. Gainera, aurtengo Korrika emakumeen omenez izango da, urteetan hizkuntzaren transmisioaren bidez hizkuntzak bizirik irauteko egin duten ahalegin handiagatik. Hizkuntz normalizazioaren bidean aurrera bagoaz ere, ezin gara gelditu. Euskal Herriko produktuak gure herriaren adierazgarriak dira, esaterako, txakolina. Derioko txakolinaren lehenengo sorta albistea da gure herrian, eta berezko izen eta izendapena izango du. Lehenengo uzta Errekaldetik hurbileko udalaren mahastiek emango dute. Prozesua aurrera doa eta bertakoa aldarrikatzen duen herriagatik topa egingo dugu laster, emakumeak gizonekin berdintasunean bizi diren mundu baten alde. Halaber, hizkuntzen bizikidetza zoriontsuaren eta euskararen alde topa egingo dugu, euskara eguneroko tresna gisa erabil dezagun. Belaunaldi berriek inor baztertuta bizi ez den gizartea sor dezaten. ■

Renovarse o morir… ¿o morir renovándose? Eso piensan y creemos acertadamente, aquellos que ven cómo las nuevas generaciones dan la espalda al pasado. Hasta hace no demasiadas décadas la tierra ha sido fuente de riqueza en sí misma, era el impulso a la vida en familia, encauzaba el devenir de los días. Muchas de las palabras que conforman el vocabulario del euskera tienen que ver con la tierra, con la naturaleza; con ella respirábamos, y sobre todo, sentíamos. Ella estaba y está presente en nuestra lengua. Las mujeres hemos sido en nuestra sociedad de todo ello, la Korrika de este año está dedicada a nosotras -coincide además con el mes en que se celebra el Día de la Mujer- nos homenajea, será un acto en femenino, porque hemos sido nosotras en muchas ocasiones las directoras de la orquesta que es la vida, las matriarcas, las que en épocas pasadas enseñábamos de puertas para adentro a nuestros hijos e hijas el euskera, las que trabajábamos en casa y el campo de igual a igual con los hombres, las que manteníamos esa relación tan especial con la tierra, pisándola, usándola, oliéndola, sabiendo que es la esencia de la vida. Recuperemos esa fuente de vida, no miremos sólo adelante. Rápido nos movemos y avanzamos; queremos rebasar los límites, y éstos son precisamente eso: máximos que irremediablemente no podemos superar. Paremos y sigamos el ritmo de la tierra, el que mejor ha sabido guiarnos, el perfecto compás. ■

## EDUKIA / CONTENIDO


| | |
|---|---|
| Tradizioa: sustraiak eta biziraupena | 01 |
| La Korrika AEK atravesará Derio el día 26 | 01 |
| Pozgarri Femenino: idazteko historia asko duen kluba | 02 |
| En breve estrenamos cine | 02 |
| Uno de cada cuatro renunció a su vivienda | 02 |
| Literatur tailerra | 02 |
| Colocar nidos: denontzako ekintza | 02 |
| Un record de habilidad matemática y mecánica | 03 |
| Aikor! Aldizkariaren bosgarren urteurrena | 03 |
| Udaberriko egitaraua: lehenengo zertzeladak | 03 |
| Martxoaren 8a: emakumeak Derion jaun eta jabe | 03 |
| El 3 de marzo Derio será la capital del Taichi | 03 |
| Elkarrizketa / Entrevista: Angel Garitano Ondarru | 04 |
| Ferrería y Molino de Aresti (I) | 04 |
| Beste 23 plaza aparkatzeko | 04 |
| Inaugurado un centro único en la lucha contra el cáncer | 04 |


# La Korrika AEK atravesará Derio el día 26

## *Aurtengo Korrikak omenaldia egingo die emakume euskaldunei*

Martxoaren 26an, astelehenean, AEK-ko Korrika Deriora helduko da Sondikatik gaueko 22:45ean inguruan. Gurera iristen denerako Korrika erdia eginda egongo da, eta Deriotik igaro ondoren Zamudiorantz abiatuko da. TOTOAN Txorierriko euskara elkarteen federazioak *kultur hamabostaldia* antolatu du haranean zehar, eta ziur aski, Niko Etxartek Korrikarako egin duen Heldu Korrikari abestia ekintza guztietan entzungo da. *Kultur Hamabostaldia* Derion hasiko da martxoaren 15ean, Kukuxumuxuren marrazkien egile Asisko Urmenetaren hitzaldiaz.

Korrika bi urterik behin egiten da euskararen alde eta 2007koa 15. Korrika izango da, oraingoan emakume euskaldunen omenez, beraiek ahozko transmisioaz arduratu baitira urtez urte, hizkuntza galtzen utzi gabe. Aurtengo Korrikaren etekinak Iruñean eta Baionan euskaltegi bana eraikitzeko izango dira. ■

> “Aurten Korrika gaueko 22:45ean helduko da”



15. Korrika emakumeen omenez



korrika aek
KARRANTZA-IRUÑEA 2007
MARTXOAREN 22tik APIRILAREN 1era



# Pozgarri Femenino: idazteko historia asko duen kluba

*Doce mujeres conforman el equipo creado hace año y medio*

Emakumeen Pozgarri futbol kluba talde gaztea da klub nagusiago baten barruan, baina hori ez da oztopoa izan alde bien interesak batzeko. Orain dela urtebete inguru, Derioko futbol taldeak, Ricardo Martínez buru zela, aurrerapauso bat eman eta neska taldea sartzea erabaki zuen. Presidentearen hitzetan "harrezkero taldea aberastu egin da".

Federadas desde la temporada pasada, desde el comienzo, las chicas que hicieron conjunto en el primer equipo provenían de Txorierri, y alguna de ellas incluso, militaba anteriormente en otros equipos. ¿Su fotografía? Es una plantilla compuesta por 12 jugadoras (Saioa, Goizalde, Nahia, Maite, Jugatx, Saioa, Samantha, Hodei, Gemma, Ohiane, Jone y Mónica) y de edades muy diferentes, de 17 a pasados los 30, y es que en fútbol sala femenino está permitido federarse desde los 14 años en Territorial, donde militan. Entrenadas por Luis María Infante, de momento no se plantean el ascenso a División Nacional, deportivamente categoría quizá demasiado alta, y económicamente difícil, los costes que conllevarían los desplazamientos serían complicados para el club. Aún así tampoco es un asunto que les preocupe en exceso, y es que su objetivo es claro: sólo desean jugar.

Ohiko ligako partidez gain, neskek hiruko torneo bitan har-tzen dute parte urtean: San Isidrokoa eta Gabonetakoa. Era berean, egutegiak uzten dituen asteburuetan udal kiroldegiko pistan egoten dira.



Udal Kiroldegia da beraien gotorlekua

# En breve estrenamos cine

*Berritu ondoren, antzinako Gurea zinea irekiko dute*



Todos recordamos el viejo Gurea, cine parroquial anexo a la Iglesia de San Isidro, donde asistimos a nuestras primeras proyecciones en una gran pantalla. De terror a clásicos, de infantil a la comedia, cada uno guarda en su retina diferentes títulos que pasaron por esta sala. Lejos de pretender la más alta definición o el mejor sonido nos trajo sueños en forma de celuloide. *Que toda la vida es cine y los sueños, cine son* decía Aute, pues los debemos recuperar en Derio. Las negociaciones y obra han sido largas pero finalmente veremos sus frutos. Sigue siendo un local de pequeño aforo pero contará con las mejores prestaciones.

## Aire zabaleko lekua

Zineak ez dira aspaldikoak bezalakoak, eta beste mota bateko jarduerak ere egiten dira zinema-aretoan errentagarriak izan daitezen, esaterako, antzezlanak. Sutondoan taldeak, adibidez, badu eszenatokia bere lanak taularatzeko (haur taldea orain). Bestalde, arte eszenikoez gain, bestelako ekintzak egongo dira: musika, hitzaldiak, bakarrizketak… Oraindik goizegi da zehazteko, baina Txorierriko kultur egitarau osoak izango du lekua.

> "Derion beharrezkoa den kultur eremua berreskuratu da"

# Uno de cada cuatro renunció a su vivienda

*Arrazoi nagusia etxe tasatuen prezio garestia izan da*



Mes y medio después del sorteo de pisos tasados organizado por el Ayuntamiento, la mayoría de adjudicatarios ya tiene firmado su contrato de compra–venta con la promotora. Sin embargo, no todos los que han estampado su rúbrica fueron afortunados en el sorteo, el elevado coste de los pisos ha hecho que de los 100 primeros adjudicatarios 26 hayan renunciado. La consecuencia que ha traído por tanto estos *noes* es que un número importante de los reservas han podido acceder a esa casa. Así la suerte que el 13 de enero se les escapó, por fin les atrapaba días después. Del resto de quienes dijeron sí, la mayoría ya tiene en su poder el primer paso para la compra de su vivienda en forma de contrato. Las obras empezarán en breve y el plazo de ejecución expira en julio de 2009. En tres veranos como fecha límite, cien deriotarras estrenarán vivienda.



Sinadura: bizitza osorako kontratua

> "Itxaron-zerrendako 26 pertsonak eskuratuko dute etxebizitza"

# Literatur tailerra

*Idazketa eta irakurketa tailer berritzailean*



Comenzaron de puntillas pero con paso firme. Una docena de devotos de las letras se citaron en la primera convocatoria que dicho taller hacía en Derio. Tozudos e imaginativos, constantes y creativos, con un amplio abanico de edades emprendieron su andadura. Literatura juvenil que brota de June o Alba, sosegada la de Beni o irónica la de Abe… Diferentes estilos en un mismo fin, continuar aprendiendo, escribiendo y leyendo buenas obras. Gemma, tenaz y comprensiva impartidora, se felicita por la buena marcha del taller. En primavera brotarán sus frutos en forma de un volumen recopilatorio.

## Liburuen aniztasuna eta liburu-dastaketa

Han construido personajes, hablado de formas e idiolectos. Han jugado a construir relatos a priori inconexos. Se divierten y fabulan, maduran un estilo y revelan sus inquietudes, desvelando en ocasiones el fervor hacia sus ídolos. Aprender y conversar, escribir y escuchar continuamente. Leen una inimaginable literatura escrita por mujeres de diferentes épocas, de *Extraños en un tren* al *Frankenstein* de Mary Selley.

Se sorprenden y pretenden sorprender en el Programa Cultural de Primavera con una actividad novedosa en Derio: una cata de libros. Servida en dos modalidades, jóvenes y adultos, será un juego interactivo más que interesante e instructivo. Un buen momento de acercarse a estos apasionados del arte de la escritura. Un agradable acierto.

Tokiko Agenda 21
Agenda Local 21

# Colocar nidos: denontzako ekintza

*Tokiko Agenda 21 kalera*



Martxoaren lehenengo larunbatean, hilaren 3an, Tokiko Agenda 21 Foroaren kideok irakasbide eta olgetako ekitaldi ekologiko baterako deia egin digute: habiak jarri San Isidro elizatik hurbileko harizti batean. Tokiko Agenda 21en berezko izaera iraunkortasunaren aldekoa da, eta, horregatik, sartu du ekintza hau egitarauan. Edozein adinetako pertsonek hartu ahal dute parte eta derrigorrezkoa ez bada ere, habiak denontzat egon daitezen, antolatzaileek udaletxera deitzeko eskatu dute, zenbat jende egongo den jakiteko (94 454 10 19 – Hirigintza Sailaz galdetu). Goizeko 11etan elizaren arkupearen aurrean bilduko gara, eta habiak banatu ondoren, duela gutxi garbitu eta sastrakak kendutako Ganbe Goikoa hariztira joango gara habiak jartzera. Data egokiena da, gutxi barru hegazti pilo bat iritsiko da eta. Ekintza ekologikoa ingurunea arduratzen den herrian.

> "Irteera San Isidrotik goizeko 11etan"

# Un record de habilidad matemática y mecánica

## *David Calvori Rubik-en kuboa txikiegi geratu zaio*



*20 urteko Telekomunikazioetako ikasle horrek harritu egiten gaitu bere trebetasun fisikoagatik eta adimenekoagatik. Senide eta lagunen bitartez gure herriarekiko lotura estua du duela urte batzuetatik, eta, orain, estatuko maisua da rubik-en kuboaz. Estatu mailako azken txapelketan 8 marka lortu zituen eta bere hurrengo rronka Budapesten dago.*

**Cómo lo llamamos: puzzle mecánico, juego, pasatiempo…**

Cada uno le llama de una forma pero a este tipo se les llama puzzles secuenciales, porque tienes que dar con una secuencia de movimientos que te lleven a una solución, no es algo del azar, es un poco de todo.

**Cuando pasa a ser el cubo de Rubick algo más que un juego o pasatiempo**

El que sea un juego o una afición no es una diferencia. Para mí fue una afición desde el primer momento, luego sí ha ido a más, al acudir a campeonatos o demostraciones pero no deja de ser un mero hobbie. Hay que tomárselo con calma.

**Unibertsitateko ikaslea izanik eta lortu duzun marka ikusita, zelan daramazu mari-maisu ospea?**

Ezagutzen nauen jendeak badaki gauza hauek ondo egiten ditudala, besterik ez. Pertsona mota batzuk daude: batzuek kuboa beren kabuz egiten dute, eta horretarako ikusmen-gaitasuna, adimena eta logikoa edo arrazoibidea behar dira; beste zenbaitek berehala egin nahi dute kuboa eta horretarako eskuen trebetasuna, erreflexuak eta segundo milaren batzuetan erabakitzeko gaitasuna behar dira. Horretarako ez da azkarra ezta iluminatua izan behar, pertsona ekina eta tematia izatea bakarrik.

**80ko hamarkadan kuboak izan zuen arrakastatik urrun zaude; zer dela eta zaletu zinen?**

Txikitatik gustatu zaizkit puzleak eta pentsarazten duten jokoak. Orain dela 4 edo 5 urte izan nuen kuboa lehenengo aldiz eta osabak apurtxo bat erakutsi zidan, jarraibide orokorrak. Handik astebetera kuboa egitea lortu nuen eta denboraldi batez ahaztuta eduki nuen, ez ninduen motibatzen. Duela bi urte tiraderatik atera nuen berriro eta horrela gaur egun arte.

**Acabas de conseguir unos cuantos records en el último campeonato de España celebrado en Bilbao.**

Sí, se hicieron 5 modalidades y batí los records en 4 de ellas. Al dividirse cada uno en dos (mejor tiempo individual y mejor media) los contabilizaron como 8 records de España.

**Hay gente que en 15.68” no hace un puzzle de dos piezas, ¿cómo se logra en ese tiempo resolver un cubo?**

Primero decir que no siempre se consigue resolver en ese tiempo, mi tiempo medio está en 17 segundos. Hace falta tener incluso el día inspirado, que te salgan los movimientos fluídos, que seas capaz de resolver los casos rápidamente… y dedicarle tiempo.

**“Rubick-en kuboaren estatuko maisua” deitu dizute. Horretan hasi duenari zein aholku emango zenioke?**

Lehenengo eta behin, zailtasunaren beldur ez izan. Eta tematiak izan, behin eta berriz ekin eta pazientzia eduki. Metodoren bat ere erabil daiteke.

**Para alguién como tú es importante la evolución, ¿cómo ves la de Derio en estos últimos años?**

Pues que ha evolucionado mucho aunque hay cosas muy buenas que no han cambiado, como las fiestas de San Miguel. Fuera de bromas, está creciendo mucho y se ha vuelto bastante más importante de lo que era. Es una percepción que la gente tiene que tener presente.

# Aikor! Aldizkariaren bosgarren urteurrena

## *Presentada la web aikor.com y la campaña Aikorlagun*

Aikor! aldizkariak bost urte bete ditu eta TOTOAN Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioak jaialdi ederra antolatu zuen urtarrilaren 25erako, Sondikako kultura etxean, urteurrena ospatzeko. Hara euskaltzale eta lagun asko bildu ziren; tartean izan ziren Andres Urrutia euskaltzainburua, Gotzon Lobera Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendaria eta Vicente Arteagagoitia Loiuko alkatea izan ziren. Txalaparta hotsak jendea areto barrura erakarri zuen eta Gorka Carro Sondikako alkateak hasiera eman zion ekitaldiari.

Iñaki Urdangarin eta Rafa Rueda musikariek abesti batzuk kantatu zituzten eta, ostean, Toti Martinez de Lezea idazleak bere liburu baten pasadizo bat irakurri zigun euskaraz. Urtero bezala, Aikor! sariak banatu ziren. Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Xabier Goienetxe Aikor! aldizkariaren zuzendariak sari bana eman zien Juan Luis Goikoetxea euskaltzain urgazleari eta Jose Luis Egiluz Txorierri institutuaren zuzendariari, hurrenez hurren, euskararen alde egin duten lanagatik. Horrezaz gainera, aikor.com webgunea eta Aikorlagun kanpaina aurkeztu ziren jaialdian.



# Udaberriko egitaraua: lehenengo zertzeladak

## *Comienza a diseñarse un programa elaborado por los grupos*

Udaberriko egitaraua klasikoa da gure herriko kultur programazioan. Kulturako batzordeak koordinatu eta talde eta elkarteek antolatzen dute urtez urte, Gabonetako egitaraua baino ikuspegi zabalagoa dutela. Eguberrikoak egindako ibilbidearen froga gisa eta parte hartzaile berriak erakartzeko balio du, are gehiago, egin daitekeenaren froga gisa. Urtero bezala, hitzordua apiriletik maiatzera arte izango da.

### Proposamen berriak eta tailer finkoak

Si denominábamos clásico en algunos aspectos al programa primaveral esto va en sintonía con lo que presenta DAT o Sutondoan. El grupo de Fotografía anuncia un rally que será de las primeras actividades a ponerse en marcha pues los premios de dicho certamen se entregan durante las fiestas de San Isidro. Las amas de casa vienen con el Teatro bajo el brazo: cultura con mayúsculas y se esperan que inauguren teatro. Nos citan el 19 y 20 de mayo.

Kulturari dagokionez, aurten Literatur Tailer berriak “Liburu Dastaketa” antolatu du. Gazte eta nagusientzako jarduera interesgarri hau tailerreko kideek dinamizatu dute. Hauxe da egitarauaren zirriborroa, anitza eta gure herriko elkarte eta taldeen ugaritasunaren adierazgarria.

> “Liburuen dastaketa bikoitza da berrikuntza nagusia”

# Martxoaren 8a: emakumeak Derion jaun eta jabe

## *Zenbait ekitaldi Emakumearen Nazioarteko Egunean*

Emakumeok nazioarteko eguna ospatzeko arrazoia eta kontzeptua aldatu da denbora laburrean, eta egunen batean zerbait anekdotikoa izan dadila espero dugu; bitartean, egun bakarra izanda ere, emakumeok borrokan jarraitzen dugu, more koloreaz, ikusi eta en-tzun gaitzaten. Zuriñe Argatxa Derioko Udaleko Emakume Sailaren arduradunak oso argi dauka: "Emakumeon lana aintzat hartzeko eguna da, edozein lanpostutarako balio dugula eta gizonak bezala baloratzea nahi dugula aldarrikatzeko eguna". Zuriñek ez ditu ahazten kontraturik, soldatarik eta Gizarte Segurantzarik gabe lan egiten duten emakumeak, agian gehien lan egiten dutenak, etxekoandreak, alegia, baina "*ez dituzte behar bezala balioesten*".

### Actividades variadas

Tanto el Área de la Mujer como la Asociación Sutondoan han organizado este año de nuevo varias actividades para conmemorar el 8 de marzo. El Consistorio ha decidido trasladar por unas horas el buzón de la mujer a Larrabarri, lugar de referencia. También involucrará a todo Derio y es que ha organizado



Zuriñe Argatxa udaletxeko lantokian

una exposición de fotos en los comercios con la imagen y las palabras de vecinos en torno a este día. El Día Internacional de la Mujer a las seis de la tarde habrá teatro a cargo de Cristina Castillo y el monólogo *Ser o no ser* organizado por Sutondoan. Hora y media después también en Larrabarri debate entre tres chicos y tres chicas del instituto acerca del papel de la mujer en la sociedad actual. Las amas de casa además han puesto en marcha la Semana de las mujeres, un programa en el que destaca la presencia del Ararteko Iñigo Lamarca el día 5.

# El 3 de marzo Derio será la capital del Taichi

## *Euskadiko txapelketa Kiroldegian egingo da*

La disciplina marcial que más adeptos está ganando en el mundo en los últimos tiempos –de hecho muchos la consideran medicina preventiva- será la gran protagonista en Derio la primera semana del mes. El sábado tres a partir de las 5 de la tarde se celebrará el Campeonato de Euskadi de la modalidad en nuestro Polideportivo. Deportistas de toda Euskalherria, con practicantes que vendrán de los puntos más alejados: Iparralde o Navarra, se darán cita. De Derio estarán 10 de los 30 inscritos en el Gimnasio Doyan. Las posibilidades de estos deriotarras no son pequeñas, ya que en el último acabaron terceros en grupos. Organiza la Euskal Federazioa de Kung Fu y el gimnasio más emblemático de Derio organiza. Merece la pena acercarse a las instalaciones municipales para ver de manera gratuita y cercana esta gran exhibición de arte marcial, la próxima cita será en Leiza.

### Y el 18 el de Vizcaya de Taekwondo

Kiroldegian ere, taekwondo (modalitaterik hedatuena) haur-txapelketa egingo da probintzia mailan. Teknika eta Punse txapelketa izango da, eta Derioko 21 partehartzaile egongo dira. Derion 70 pertsonak egiten dute taekwondo eta martxoaren 18an arte horretan lortu duten sinkronizazioa eta goiko maila erakusteko aukera aparta izango dugu.



Borroka-artea eta prebentzioko medikuntza

# Entrevista
## Elkarrizketa

## Ángel Garitano
### Ondarru

Segundo entrenador del Athletic Club de Bilbao

*Ondarru historiako lehen "bigarren entrenatzailea" izan zen. 1982an Sestaoko taldean agertu zen Manerekin batera eta urte horretara arte, futbolean ez zegoen horrelakorik. Lehenago futbolari aritu zen Alavés, Levante edo Mallorca taldeetan. Adopzioko deriotar honek, Athleticen zale amorratuak, %100ean defendatzen du bere filosofia.*

**Zer izan zen zuretzat Athletic klub historikora joatea?**

Beno, euskal entrenatzaile guztien ametsa da, eta nire kasuan, bizkaitarra eta Athleticeko kidea izanik, ba are gehiago.

**Manérekin bikote ezin hobea osatzen duzu. Nagusirik ez egotea da gakoa?**

Bera da nagusia eta ni laguntzailea edo, bestela esanda, osagarria. Orain dela 25 urte hasi ginen elkarrekin, errespetua gordez, eta gainera, lagunak garenez, errazagoa da lan egitea.

**El Athletic es una parada especial en vuestra carrera...**

El Athletic es un club que siempre nos había gustado entrenar y te vuelvo a repetir, es el sueño de todo entrenador vasco… Sí nos hubiera gustado coger el equipo de otra manera, a principio de temporada, haber hecho otras cosas, nos contrataron con un poquito de urgencia, y el asunto es sacar al equipo de donde está. En ello trabajamos.

**Ahora está toda la familia en Euskadi ¿cómo lo vivís?**

Es una situación especial… uno en la Real y el otro en el Athletic, y además los dos luchando por la supervivencia… pero bueno, ¡a veces ocurre!

**Eta Gaizka Athleticen balego?**

Horretarako aukera izan zuen, baina azkenean, lanbide kontuak zirela eta, Errealera joan zen. Gaztetan urte mordoa eman zuen Lezaman, futbola horrelakoa da, eta profesionala bazara, aukeratu egin behar duzu.

**¿Sigues la situación del Derio?**

La pérdida de Zubi (Sabin Zubieta) ha sido impresionante, ha sido una cosa inesperada y ha sido un hombre que ha dedicado muchos años al club. Tanto a él como a Ramón Imaz hay que agradecerles que hayan estado al frente del Derio, del equipo del pueblo. Al final estos asuntos lo único que te dan es trabajo, no es fácil, y la gente no sabe reconocerlo. Ahora Zubi nos ha dejado pero Ramón sigue al frente y creo que es un gran presidente. El equipo seguro que saldrá de esta situación: hay socios, la gente va al campo…

**Hurrengo belaunaldiaren zain egon behar da?**

Bai, baina ez da erraza. Futbol erregionala ez dago babestuta eta zuzendaritzakoak eskean ari dira beti; zeregin askotan lan handia egin behar da, baina ez dute etekinik ematen. Eta deriotarrek egiten badute … Derio horrelakoa da… taldearen alde beti.



Ondarru Derion karta-partidari hutsik egin gabe

> "Derion gizarte eta enpresa arloak oso ondo uztartu dituzte"

# Ferrería y Molino de Aresti (I)

conoceDERIOezagutu

*Derioko industriako iragana*

Azken mende erdian enpresa ugari kokatu da gure herrian, eta horietako batzuk oso modernoak eta aurreratuak dira; Biogune, esaterako, genetikaz arduratzen da minbizairen aurka; Adirondack enpresan saiakerak eta analisiak egiten dira; Alfe edo Magefesa enpresa beteranoak metalaren transformazioan aritzen dira eta Arbeo edo *La Jabonera* ezaguna Derioko iragan industrialekoak dira. Hala ere, guztietatik zaharrena aipatu gabe dago: Arestiko burdinola eta errota: 1996ko abenduaren 18an Eusko Jaurlaritzatik interes arkeologikoko aldearen adierazpena jaso zuen.

### Derioko burdinola

La Ferrería de Aresti se encuentra situada en las proximidades del polígono industrial Neinver y es fácilmente visible desde el Corredor del Txorierri. Hoy en día el lugar es testigo mudo de las caravanas diarias de coches que se generan en sus proximidades. Este soberbio edificio de planta cuadrada y tejado a cuatro aguas, alojaba la antigua ferrería de la que se tienen referencias ya desde el año 1595. En el censo de 1745 aparece como avecindada a la villa de Mungia y el Conde de Gondomar era el propietario de esta y del molino anexo, donde trabajaba como arrendatario por aquel entonces Ignazio Gurbistondo. Por desgracia apenas quedan restos de las instalaciones que albergaba en su interior, ya que con el paso del tiempo ha sido transformado en residencia.

### Garai hartako burdinolen garrantzia ekonomian

Las ferrerías ejercieron una enorme influencia en la economía de las villas y anteiglesias donde se asentaban, ya que aparte de las rentas que proporcionaban a sus propietarios, generaban mano de obra en su entorno más próximo. En una ferrería trabajaban de contínuo de 4 a 5 operarios, a turnos durante las 24 horas hacían por tanto necesaria una plantilla de unas 10 personas. Además trabajos como herreros, carboneros o carreteros para el transporte del material, así como el personal dedicado al mantenimiento de estos edificios estaban íntimamente ligados a estas instalaciones protoindustriales.

Pero aparte de la mano de obra, para el asentamiento de una ferrería hacían falta tres elementos fundamentales: agua, carbón y mineral de hierro.

En Aresti el agua la proporcionaba el río Asúa y el carbón se obtenía en los bosques próximos de Iturritxualde. El mineral de hierro procedía preferentemente de las ricas minas de Somorrostro. Desde Galindo, en las inmediaciones de Barakaldo era transportado en gabarras, llamadas *venaqueros*, hasta el puerto de Asua. Allí era cargado en carretas de bueyes y por el camino de los ferrones (actual carretera Asua-Erletxes) llegaba la vena a Derio y al resto de ferrerías del valle. ■



Aresti baserria industria-ingurunean kokatuta

> "Arkeologiako intereseko aldearen adierazpena jaso zuen 1996an"

### Beste 23 plaza aparkatzeko

*Gracias a las obras en torno a Besaide Plaza*



Unbe edo Euskalerria Kaleko obrak direla eta, aparkatzeko gero eta leku gutxiago zegoela ematen zuen arren, plaza berriak egin dira herriko goiko aldean. Uribe eta Bestorrene kaleetan, batik bat, espaloietako oztopo eta irtenguneak kendu ondoren, ibilgailuak aparkatzeko leku gehiago dago orain; izan ere, kendu diren leku horiek oinezkoentzat ez zuten ezertarako balio, eta oso garrantzitsuak ziren espazioa handiagotzeko eta guztira, 20 plazatik gora lortu dira alde horretako auzokideentzat.

### Inaugurado un centro único en la lucha contra el cáncer

Bizkaiko Parke Teknologikoko BioGune Ikerkuntzarako Zentro Kooperatiboak Egiturazko Biologiako zentroa jarri du Derion, molekulen arloko ikerketak eta taldeak, gaixotasunen (esaterako, minbizia edo eritasun "bitxiak") aurkako botikak eta tratamenduak garatzeko. Hori dela eta, zentro hori espezialitate horretako bakarra da Derion. 13 milioi euroko inbertsioa egin da, eta joan den hilabetean ireki zen; inaugurazioan Juan José Ibarretxe Lehendakaria egon zen besteak beste. Derio, berriz ere, erreferentea punta-puntako enpresentzat.




## Telefono interesgarriak

| | |
|---|---|
| **DERIOKO UDALA** AYUNTAMIENTO | 944 541 019 FAX 944 542 832 |
| **UDALTZAINGOA** | 44 543 725 |
| **SERVICIOS SOCIALES** | 944 542 243 |
| **SUHILTZAILEAK –** BOMBEROS | 944 541 540 |
| **GARBIGUNE** | 944 034 090 |
| **HERRI IKASTETXEA –** ESCUELA | 944 541 246 |
| **UDALSAREAK -** AVERIAS DE AGUAS | 944 873 187 |
| **BEHARGINTZA TXORIERRI** | 944 536 370 |
| **INSTITUTUA –** INSTITUTO | 944 543 258 |
| **EUSKALTEGIA** | 944 540 062 |
| **MANKOMUNITATEA** | 944 540 350 |
| **KIROLDEGIA –** POLIDEPORTIVO | 944 540 159 |
| **GAZTELEKU** | 944 540 469 |
| **NAGUSIEN ETXEA** | 944 540 763 |
| **KZ GUNEA** | 944 543 486 |
| **OSASUN ZENTROA** CENTRO DE SALUD | 944 543 004 |
| **TAXI DERIO** | 944 800 909 |

**BEITU ALDIZKARIA**
beitu@deriokoudala.net
Legezko Gordailua: BI–1377–04 Inprimatzea: *Ediciones Beta*